Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Mendeberri proiektu pedagogikoa jakin-mina sortzen ari da kanpoan

2007/03/16

Datorren astean, **bi bisita** izango ditugu **HUHEZIn,** Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Biek zerikusia dute Mendeberri proiektu pedagogikoarekin, bisitariak hona etorriko baitira batez ere Mendeberri proiektuaren berri izateko.

Astelehenean **hamabi irakasle** etorriko dira Gironako Unibertsitatearen Hezkuntza Fakultatekoak, eta bi egun egingo dituzte Eskoriatzan.

Asteazkenean, berriz, hauek ere bi egunez, **lau irakasle** izango ditugu bisitan, hurbiletik jakin nahi dute-eta zelakoa den Mendeberri proiektua. Bi Murtziako Unibertsitatetik datoz, horietako bat Hezkuntza Fakultateko dekanoa. Beste biak Bartzelonako Unibertsitatekoak dira, bat Hezkuntzako dekano-ordea.